



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Jose M. Alzuri Vertiz
Javier Bereau Miquelarena
Mikel Gereka

2019ko utarrilaren 23an, 16:00ak direnean, ohiko osoko bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Beñat Ripodas Beroiz Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu diren urriak 25eko (ohikoa) eta azaroak 17ko (ezohikoa) bilkuretako aktei. Inork ez du azalpenik egin eta **aktak onartu dira**.

2. 3. POLIGONOKO 12. LURZATIKO IKERKETA XEHAKATUA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

3. poligonoko 12. lurzatian, aparkalekurako zesioaren eta gehieneko alineazioen aldaketak zehazteko aurkeztu zuen José Luís Erasun Arizteguik xehetasun-azterlana. Hasierako onespena eman zion Iturengo Udalak 2018ko urriaren 25eko osoko bilkuran; espedientea jendaurrean egon zen (2018-11-20eko NAO eta egunkariak), inork alegaziorik aurkeztu ez zuelarik.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 63. eta 74. Artikuluekin bat etorriz, **Udalbatzak erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 1

- 1. Behin betiko onespena ematea 3. Poligonoko 12. Lurzatiaren xehetasun-azterlanari.**
- 2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.**
- 3. Onetsi den agiriaren kopia bat bidaltzea Nafarroako Gobernuari.**
- 4. Erabaki hau jakinaraztea sustatzaileari.**

3. 2. POLIGONOKO 270. ETA 533. LURZATIETAKO JABEEKIN EGINDAKO HIRIGINTZA HITZARMENA. HASIERAKO ONESPENA.

Iturengo Udalak, 2018ko maiatzaren 10ean egindako osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea, espedientea abiarazteko baizik ez, hirigintza hitzarmena 2. poligonoko 270. eta 533. lurzatiaren jabeekin. Onartu ondoren 10 eguneko epea eman zitzaion lurzatiaren jabeei, hitzarmenaren testuarekin adostasuna edo desadostasuna agertzeko. 2018ko urriak 25eko osoko bilkuran, hainbat elkarrizketa eta kontsulten ondoren, maiatzak 10eko bilkuran onartu zen hitzarmenaren testu berdina



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

mantentzea adostu zen, berriro ere 270. eta 533. lurzatietakoa jabeen hitzarmenarekin adostasuna edo desadostasuna agertzeko 10 eguneko epea emanez. Azkenik Iban Isasik, aipatutako lurzatiaren jabeen izenean, Udalari hitzarmenarekiko adostasuna jakinarazi egin zion 2018ko azaroaren 21ean.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu batekina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikuluan xedatutakoa betez, **Udalbatzak erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 1

- 1. Hasierako onespina ematea hirigintza hitzarmenari, espedientea abiarazteko baizik ez.**
- 2. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, jendaurrean egon dadin hogei laneguneko epean.**
- 3. Erabaki hau jakinaraztea interesdunei.**

4. 2. POLIGONOKO 129. ETA 130. LURZATIEN ARTEAN EGINDAKO HITZARMENA. BEHIN BETIKO ONESPENA.

Iturengo Udaleko alkateak, 2018ko urriaren 17ko 2018/61 Ebazpenaren bidez, erabaki zuen hasiera batean onestea, espedientea abiarazteko baizik ez, 2. poligonoko 129. eta 130. lurzatiaren jabeen arteko hirigintza hitzarmena (Udalak, Marcelino Alchu Ochandorena eta María Teresa Agesta Vertizekin). Espedientea jendaurrean egon zen 2018ko azaroaren 6ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren (214. zenbakia), inork alegaziorik aurkeztu ez zuelarik.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu batekina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 25. artikuluan xedatutakoa betez, **Udalbatzak erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 1

- 1. Behin betiko onespina ematea hirigintza hitzarmenari.**
- 2. Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea alkateari.**
- 3. Akordio hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.**
- 4. Erabaki hau jakinaraztea interesdunei.**

5. ESKAERAK.

1.- Herriko hainbat gazteek eskatu dute neguan egoteko leku bat. Hotza dela eta eta herrian egoteko lekuen alternaibaren faltan, Udalari lokal bat eskatzen diote bertan egoteko. Zin egiten dute,



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

aurreko gazteek izan zuten jarrera berdina ez dela errepikatu behar. Eskaera aztertuta **Udalbatzak erabaki du:**

Alde 5
Abstentzio 1

1.- Lokal bat bilatzea gazteei uzteko.

2.- Lokala erabiltzeko arau batzuk jartzea, hala nola debekatua egonen dela edan zein erretzea.

3.- Ekaera egin duten gazteen gurasoei, eskaeraren berri ematea jakinaren gainean egon daitezen.

6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Jarraian, alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: 2018/63tik 2018/78a arte eta 2019/01. ebazpena.

7. INFORMAZIOAK.

Ondoren, agiri hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: “Trilogía del Baztán” filmatzeko eskaera, Aurtitzeko hilerrian 2018ko azaroaren 28an. Jabegoaren erregistroak, aldameneko lurzatiaren jabeak garen heinean egindako jakinarazpena. Uraren bailarak, Montoiako tunelaren irekiera (azaroaren 5etik aurrera) jakinarazte digu. Ingurugiroko Zerbitzura bidalitako oihan-ustiapenak (Marta Legazcue Goñi). GAN-NIK-ek NOSTROMO PICTURES S.L.-ri Bertizeko natura-parkean filmatzeko emandako baimenaren jakinarazpena. Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; NUKF-ek 2018ko abenduaren 14ean ospatu zuen ohiko bilkuraren gai ordena. /NUKF-ek azaroak 25erako (nazioarteko emakumeen eguna) aldarrikapen amankomunerako atxikitze bidalitako gonbidapena. Goienerrekin egin duen ongi etorria. Ingurugiroko Zerbitzuak, 2017-2018ko eperako emandako baimenak 2018-2019ko eperako zabaldu dituela jakinarazteko bidalitako 887/2018 ebazpena. Abeltzaintzako Zerbitzuak bidali dituen Ustiapenen Erregistroan izandako mugimenduak —Jose María Alzuri Vértiz sailkapen zooteknikoaren aldaketa eta Iker Berregui Mindeguíaren alta Mindeguíaren baja—; Kantauriko Ur-Konfederazioak 2018ko azaroaren 21an emandako jakinarazpena, Simón María Ayoroa Fagoagak polizia eremuan eraikitze baimena eskuratzeko egindako eskaera jaso izanarena. Lurralde aberastasuneko sailak emandako 64/2018. ebazpena, erregistraturiko ondasun higiezin baliok onartzen dituen.

Gai ordenetik kanpo: Presazkoak direla aho batez onartu ondoren ondorengo gaiak eztabaidatu dira.

1.- “Caja Rural”ean 33.000€ mailegua hartzea. Aurrekontuak adostu zirenean kontuhartzaileak azaldu zuenarekin bat eginda, **Udalbatzak erabaki du:**

1.1.- Mailegua kontratatzea.

1.2.- Baimena ematea Alkateari, mailegua eskatu eta sinatzeko.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

8. GALDE-ESKEAK.

Ez da galderarik egin.

9. MOZIOAK.

Ez da moziorik egon.

Eta bertzerik ezean, 17:00ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.